

Aiker

Exotikoko Alaitzak

Joseba Etxebarria, aktorea

**Abotsa
itzalpean**

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx) Tf.: 94 452 34 47 e-posta: aikortxori@yahoo.es www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Nagore Peñafiel, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Juantxu Bilbao, Janire Onandi, Basabiotza eta Laura Martinez.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
Euzko Legebiltzaria

2010-2012ko legegintza
Euzko Legebiltzaria




diruz lagundutako aldizkaria



26 Txorierriko hartzaindegiak



12 Potato



30 Zamudioko Kamara Korala



14 Unai Markina



24 Derioko Merkataritza eta Ostalaritza Astea

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
12Gurean izan da... Potato 14Gaztea eta... Unai Markina 16Behargintza 24Derioko Merkataritza eta Ostalaritza Astea 26Txorierriko hartzaindegiak 30Zamudioko Kamara Korala 32Baseri mundua 33Teknologia 34Txorierritarrak munduan 35Txorierrri ezagutu 36Sukaldaritza 37Denborapasa 38Agenda



Oporretan ederto, lanean ere bai



BELEN GANA
(Irakaslea)

Oporren osteko depresioaren inguruan hona hemen hausnarke-tatxo bat. Oporrak dira, zer esanik ere ez, urteko garairik onenak; oporretan ederto egoten gara eta, gainera, pilak kargatzeko beharrezkoak zaizki-gu.

Umeak, irakasleak, ikasleak, langile guztiak -etxeoandreak barne- oporrek jakina, atsedena hartzeko, deskonetatzeko, idar berritzeko eta disfrutatze-ko, baliotzen ditugunez, gehinok atsedean egun hauek amaitzen direnean tristetu eta deprimitu egiten omen gara: opor osteko sindromea.

Gauza guztiek hasiera eta amaiera daukate, baina kasu honetan hoberena jarraipena ere badaukatela da; bizitzako

“ Depresiorik ez izateko beste bide bat da lana edukitzea baloratzea ”

beste egoeratan bezala kate bat osatzen da eta. Lana izateko ikasi eta saiatu egin behar da eta, era beran, oporrek izateko lana eduki behar da. Zorionsuak lana daukagunak, batzuentzat karga bada ere.

Katea edo zirkulua sinplea da. Ikasi edo behar egin, ondoren oporrek, hauek disfrutatu eta berriz lan egin behar dugu. Zer egingo diogu bada! Hori horrela, San

Ferminetako esaldia datorkit burura eta "jada hurrengo oporretarako gutxiago falta da" esanez, hurrengo arte agurtzen ditut.

Depresiorik ez izateko beste bide bat da lana edukitzea baloratzea. Pentsa ezazue paroan edo beharrik aurkitu ezinik dabilzanengan, horiek bai depresioa izateko motiboak!

Lana izatea pribilegio bat da. Bai badakit, aberatsak edo errege-printzeak opor iraunkor batean bizi direla, baina ez diet inbidiarik; hori bai, mila miloiko probabilitate barruan, loteria egokituko balitzait, beste ordutegi batean egingo nuke lan...

Aitortu behar dizuet, oraintxe bertan

egokitze fasean nagoela eta, gainera, neure burua lasaitzeko, egutegian datorren urtean dauden zubiei begira ari naitzela. Hauxe bati depresioa kentzeko modu ederra! Ikasturte berri on denoi!

Baina lanari ere begiratu beharko diogu ba, eta kurtso barria prestatzen gabiltzanez, hasierako prestaketak eta betebeharretan gabiltzala esan behar dizuet: publizitatea egiten, kartelak ipintzen, buzoneatzen eta hainbat ekitalditan parte hartzen jendea animatzeko euskara ikastera.

Lan honetan ez daukagu depresiorik, alderantziz, ilusioz beterik dena prestatzen ari gara, klaseak, materialak, taile-rrak, memoriak eta plan guztiak datorren ikasturteari begira. Orain ikasleen txanda da, gu prest gaude nahi duena laguntzeko. Animo eta euskaraz bizi!

Hastea gatxa da beti

Adaptazioa, egokitzea, moldaera-aldia... azken asteotan behin baino gehiagotan entzun doguzan berbak dira. Izan be, udea amaitu da eta hurrengo urtera arte itxaron beharko dogu emoten deuskuzan gauzakaz ostera be disfrutetako. Beste sasoi bat hasten da orain. Adaptazioa etxeko txikienak hasibariak diralako eskolan, egokitzea oporrek amaitu eta beharrera bueltatzen garelako gehienok, edo moldaera-aldia udeak dakarrena arrapaladan joaten ikusten dogulako. Sasoi honetan aurpegi goibel asko ikusten doguz edonon. Mahai ganean daukagun oporretako argakia begiratzuz oraitzapenak jatorkuz burura, eta esker-rrak, ze horrela bakarrik sinisten dogu oporretan egon garala. Badirudi urteak pasa direla harrezkero! Azaleko kolore baltzarana desagertuz doa, goizetan fresko egiten dau, ez gara egoten gauetan itargiari begira terrazatxu baten... hau da, bestelako gauzetan pentsetan hasi beharra dago derrigor.



NAGORE PEÑAFIEL
(Kazetaria)

Urteroko koplak bardina, baina lagun baten alabatxuak dinoan moduan: "bizitza horrelakoa da". Eta oraindino 4 urte beteteko dago abenduan...

Udea joan da, bai, baina joan danaren eta datorrenaren artean gaurko eguna dago! Eta gura izanez gero, gauza interesgarri asko dagoz egiteko. Bakotxaren aukerea da adaptazio garai honi umoretsu aurre egitea edo ez.

J. ELORRIAGA
Prestakuntza eta irakaskuntza
Madrilgo Unibertsitatean
Tel. 91 422 00 11
1980-1990

MAKALUZA
Madrilgo Unibertsitatean
Tel. 91 422 00 11
1980-1990

MAKALUZA
Madrilgo Unibertsitatean
Tel. 91 422 00 11
1980-1990

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Lezamako mugetatik 2007:

Antolakuntza txapeldun!

Basobaltz Jai Batzordea, Gailur Mendi Taldea, Lezama Bizirik eta beharrean ibili zarien guztiori gure zorionak. Hamahiru larrabetzuarrek parte hartu genduan ibilaldian, hamaiak oinez eta bik lasterka. Danok be zurtz eginda itxi gozuez egin dozuen behar paregabeagaz. Benetan lan txalagarria: aurreko egunetan egindako lana, sasiak jotzen, bideak zabaltzen, ibilbidea markatzen... eta egunetan bertan irteera lekuan, kontroletan, bide-gurutzeetan, helmugan... dana ezin hobeto antolatuta. Zeuek zarie lehenengo txapeldunak, eta zuekaz batera parte hartu genduan guztiok. Lagunarte, inguru eta giro ederrean emon genduan goiza, zueri esker. Bata agurtu, besteagaz berba egin... Ezin deusuegu gehiagorik eskatu, eskerrak emotea baino ez dauka. Aurten parte hartu dogunok ziur datorren urtean be hor izango garana. Aurten dozentatik gora 'akar' eta ahuntz izan bagara, datorren urtean dozena pare bat. Badakizue, ahuntzak eta 'akarrak' beti izan gara mendizaleak, hanka bikoak zein laukoak.

A! Eta Gangurenganera bidean bota genduan izerdiak eta nekeak merezi izan eben, ganerako guztia bikainetik gorakoa izan zalako. Ez dago gehiago eskatzerik. Gure zorionik beroenak egin dozuen lan txalagarriagaitik eta datorren urtera arte!

Larrabetzuko ahuntz eta 'akar'-talde ibiltaria

Inposatutako gazte lokalik ez!

Aurtengo ikasturtea ere pil-pilean hasi dogu Zamudioko gazteok. Gogoratzen dozuenez, iaz Inisitue Gazte Asanbladatik udalaren jarraera gazte lokalarekiko salatu gendun; gazteok ezer ez genkienean gazte lokalaren obrak hasi ziren, euren aurpegia zuritzeko nahian, eurek be gazte lokalean zer egingo zan jakin barik.

Gure haserrea oraindik handiagoa da alkatesak gazteokin batzar bat egitea onartu ebalako, eta oraindik inor ez dalako gurekin batu. Gainera, gazte lokala zabaldu da ezelango propaganda egin barik. Alkatesa gezurretan ala?

Lehen esan dogun moduan, lokalaren funtzionamendua ez dago oraindik oso argi, zergatik? Suposatzen da lokala herriko gazteentzat dala, baina zer egiteko?, lonja baten moduan erabiltzeko, gazteria sofán etzanda egoteko, Play Stationean jolasteko? Hau da, alienizatzeke?

Zuen helburua ez zan hurrengo hau izango?: Gazteria lokal baten barruan egotea eta ez elizpe-

an jendearen begibistan ezer egin barik. Horrela arazoa konponduta dago, nahiz eta gazteek bardin jarraitu, baina hori bai, lokal baten barruan. Zer uste dozue Zamudioko bizilagunak inuzentekak garelak?

Gazteriaren problematika ez da kalean edo elizpean jardutea, baizik eta herri honetan eurentzako egitaraurik ez egotea. Zamudioko gazteek benetan gura dabena, euren kezak eta ilusioak jorrazteko bitarteko dan lokal bat izatea da. Beraz, Inisitue Gazte Asanbla-dak inposatutako lokal honeri buelta emongo deusa eta gazteriarena egin.

Kontura zaiteze gazteria ez garelak herriko arazo bat, baizik eta Zamudioko herritarrak garelak, eta herritarrak garen heinean gure kezak, gabeziak, betebeharrak eta helburuak daukaguzala.

Hementxe gazoz eta hemendik aurrera geure presentzia igerriko dozue.

Inisitue Gazte Asanblada

ARRATE
 ...
 ...
 ...

CORROKAN
 Regulat y Complementat
 ...
 ...

aldekone
 hortz klinika
 Tel: 944 454 33 07
 Anuska Prieto Aguilar
 Odontóloga
 ...
 ...

ARRATE
 ...
 ...
 ...

CORROKAN
 Regulat y Complementat
 ...
 ...

aldekone
 hortz klinika
 Tel: 944 454 33 07
 Anuska Prieto Aguilar
 Odontóloga
 ...
 ...

Mankomunitatearen egoitza berria inauguratu da



Maiatzetik martxan badago ere, Txorierriko Mankomunitatearen egoitza berria irailaren 7an inauguratu dute ofizialki. Eraikina Derioko udaletxean zegoen lehen eta orain Txorierriko etorbideko 9. zenbakira eraman dute. Egoitza berriak 500 metro kuadro ditu eta bertan Mankomunitateak

eskaintzen dituen zerbitzu gehienak daude. Etorkizunari begira, egoitza handitu eta euskaltegia ere han jartzeko asmoa dute.

Inaugurazioan hainbat agintari bildu dira: Txorierriko alkate guztiez gain, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahalduen Nagusia eta José María Aburto eta Juan Francisco Sierra-Sesumaga Diputatuak ere izan dira, besteak beste. Bilbaok txorierriarren elkarlana azpimarratu du, eta bere ustez ezauzgarri hori "kanpora erotekoa da". "Bulego horietan ikusten da diru publikoa jendeari zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen dela", esan du.

"Mankomunitatearen zerbitzu zein lankide kopurua areagotu direnez, horiek guztiak hartzeko lekua ere handitzeko beharra zegoen", azaldu du Luis Ramón Alvarez Txorierriko Mankomunitateko presidentek. Juan Miguel Atxutegi Mankomunitatearen kudeatzailea bat etorri da Alvarezekin. Bere ustez, "zerbitzuak batu behar ziren eta horrela txorierriarrek badakite nora joan Mankomunitateari dagokion arazo bat izanez gero".

Lezamako Gizarte zentroaren lanak, urte amaierako

Lezamako Udalak urtearen amaieran ekin die gizarte zentro polibalentean eraikitze lanei. Zentroa herriaren erdialdean kokatuko da eta lezamarren beharizan soziokulturalei emango die erantzuna. Horrela, bi solairu izango ditu eta bertan hainbat zerbitzu eskainiko dira: gazteentzako txokoa, aterpea eta herriko elkarteentzako aretoak, esate baterako. Azalera erabilgarria 241,52 metrokoa izango da eta eraikitze lanetan 706. 615 € jarriko dute. Eraikinak eguzki plakak ere izango ditu, kontsumo energetikoa ziurtatzeko.

Txorierri taldea, txapeldunordea Harrizulatzaileen Ligan

Ekaina eta irailaren bitartean Euskal Herriko Harrizulatzaileen IX. Ligan izan da. Probak gure lurraldeko hainbat herritan egin dira -Urtuellan, Gallartan, Muskizen eta Santurtzin, esate baterako- eta azken proba Hondarribian egin zuten joan den domekan. Ligan 10 taldek parte hartu dute eta Txorierri taldea ere izan da partehartzaileen artean. Txorierrikoek bigarren postua lortu dute Ligan (68 puntu - 1307,80 cm); txapelduna Jaizubia izan da (88 puntu - 1489,10 cm).

OTIKA INULSAI

OTIKA INULSAI

OTIKA INULSAI

OTIKA INULSAI

TALESIS JUAN ANDRÉS

TALESIS JUAN ANDRÉS

TALESIS JUAN ANDRÉS

Marcelo Zamora

Marcelo Zamora

ERRORE ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Artea 01000, 119
Tlfonua: 94 452 11 58
ZAHUBIO

ALBERTO

ALBERTO

ALBERTO

ANARI ALTA

ANARI ALTA

ESTILISTA EVA ARDINES

ESTILISTA EVA ARDINES

ESTILISTA EVA ARDINES

ZAHUBIO BILBO

ZAHUBIO BILBO

ZAHUBIO BILBO

Batzokiaren gaineko liburua aurkeztu dute Lezaman

Irailaren hasieran *Lezama, mende bat geroago* liburua aurkeztu zen. Liburua Cirilo Davilak idatzi du eta bertan Lezamako Batzokiaren azken 100 urteen historia batu du. Aurkezpena Iñigo Urkullu EAJren

BBBren lehendakaria, Alaitz Etxeandia Lezamako alkatea eta Jesus M^a Bilbao EAJren Lezamako lehendakaria joan ziren. Hainbat lezamar eta politikari ere batu ziren batzokian eta azken horien artean, Txorierriko alkateak eta EAJren Txorierriko lehendakariak izan ziren.

Batzokiaren historiarekin batera alderdiak Lezaman izandako ibilbidea ere errepasatzen da liburuan eta, era berean, hainbat pasadizo bildu dira.

Beste alde batetik, Lezamako Uri Buru Batzarreko lehendakariak eta Lezamako alkateak elkarrizketatu dituzte liburuan; Andres Arteaga, Garbiñe Etxabe, Alberto Zarate eta Alaitz Etxeandia, haien artean. Lezamako argazkien bilduma ere batu dute bertan. "Lanak gazteek zein herrira biziten etorri direnek Lezama, bere historia eta alderdia ezagutzea du helburu". Hori dela-eta, liburua dohainik banatu da etxe guztietan.

Lezamako batzokiak 100 urte bete ditu aurten eta, liburuaz gainera, zenbait ekitaldi antolatuko dira urteurrena ospatzeko.



250 zahar batu dira Derion

Irailaren 16an, domekaz, Bizkaiko Nagusieko Bizikidetzarako XXXII. Jardunaldia egin zen Derion. Club Leones Bilboko elkarteak urtero antolatzen du ekitaldi hori, eta aurten Derioko Udalarren laguntza jaso du.

Jardunaldia oso arrakastatsua izan zen: Bizkaiko bederatzi egoitzatako 250 zaharrek parte hartu zuten. Beste alde batetik, 30 boluntario ibili ziren lanean, eguna antolatzailerik aurreikusitako bezala irten zedin.

Lander Aiarza Derioko alkatea, Marta Barco Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazioaren eta Proiektuen zuzendari nagusia eta Lucho Rengifo Club Leones Bilboko elkarteko presidentea buru izan ziren jardunaldian.

BAR BIDE-BI

irratia botak
irratia botak

Grand barakak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

BIDE-BORRI

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

Orma Ondo, S.L.

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

TXORIERRI

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

PATKI

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

GAMINIZ

JATETXEA

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

OBRAS Y REFORMAS

Ganobia

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

LAGAS LAGAS

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1

LAGAS LAGAS

Barakak, botak, irratia botak

Telefonoa: 94 507 70 00
LAGAS LAGAS 01001, 1



Behar bereziak Goikolexeako karrejuan

Antonio Abendibar buru-belarri ibili da Larrabetzuko Goikolexea auzoko karrejuabarritzen. Beharrak lehen ikusian arruntak badirudie be, berezitasuna badabe: Mallabikoak erabil dauan teknikea. "Ez dot porlanik erabilten; harria eta harea, besterik ez". Karrejuetan porlana erabili ohi dira harriak lotzeko, baina porlanak zarata sortzen dau eta "hareaz eginez gero, ez dago zaratarik", azaldu dau Antoniok.

Harri mota bigaz egin dabe Goikolexeako karrejuan: galtzadarriak eta itsasoko harribilak. Karrejuo untzean harribilak jarri dabez eta karrejuo izkinetan, galtzadarriak. "Lehenengo harria ipini nebanean, 'Jesus! Noiz bukatuko dot hau?' pentsatu neban". Harrien ganean harea bota dabe eta Antonioren esanetan, horregaz nahikoa da haitzak ondo lotu eta ez askatzeko. "Baina itsasoko harea izan behar dau, izan be harea baltzak ez dau balio, denborak aurrera egin

ahala gogortu eta harriak askatu egiten dira-eta".

Larrabetzuko Udaleko beharginek karrejuo harribilak banan-banan kendu dabez eta Antoniok eta bere lan-taldeak horreek bereiztu, eta baliagarriak ziranak banan-banan ipini dabez barrero. "Sei orduko lanaldia egin dogu. Sei orduok belauniko emon dodaz". Harri guztiak jarri ondoren, ura bota eta harea kendu dabe, harriak begi bistan lotzeko. "Idiak be ekarri dira, karrejuo probatzeko eta harriak asentau daitezcan".

Mallabikoaren teknika erabilten dauanik ez dago beste inor eta, horregaitik, leku askotatik deitzen deusie bertako karrejuo apaintzeko. "Jubilatuta nago, baina ez nabe bakean izten. 70 urte dodaz". Antoniok 20 karrejutik gora egin ditu azken 26 urteotan, "Gatikan, 2; Urdulizen, 1; Axpen, Bermeon, Errigoitin, Berrizen, Elgoibarren, Getxon, Gordexolan...".

Euskarari dirulaguntzak

Urtero bezala, Txorierriko Mankomunitateak udal euskaltegiatik aparte beste euskaltegi edo zentroetan euskara ikasten dutenei aurtan ere dirulaguntza emango die. Dirulaguntza hori eskatzeko epea urriaren 5etik azaroaren 5era izango da. Datozen egunotan Txorierriko etxe guztietara agiri bat ailegatuko da eta bertan dirulaguntza eskuratzeko arauak eta eskaerak non aurkeztu behar diren azalduko dira.

300 parte-hartzaile, 'Lezamako Mugetatik' ekimenean

Lezamako Mugetatik II. mendi martxa eta lasterketa egin ziren irailaren 2an, Basobaltz jai batzordeak, Gailur mendi taldeak eta Lezama Bizirik auzo elkarteak antolaturik. Ekimenaren helburua herri bideak berreskuratzea eta berreraikitzea zen. Guztira, Euskal Herri osotik etorritako 294 lagun bildu ziren: 195 ibiltari eta 99 korrikalari. Lezamarrek inoiz baino hobeto egin zituzten prestalanak. Ondorioz, parte-hartzaileek antolakuntza goraiatu egin zuten eta, gainera, aitortu zuten ez zutela uste Lezaman halako bide eta paraje politikak zeudela. Atxikimendu horren guztiaren ondorioz, antolatzailerak dagoeneko hasi dira gogo eta ilusio handiz datorren urteko Lezamako Mugetatik ekimena prestatzen.

Euskaren aldeko jaietara autobusak

Mankomunitateak Kilometroak eta Nafarroa Oinez euskararen aldeko jaietara joateko autobusak antolatu ditu. Kilometroak Bergaran izango dira urriaren 7an eta Nafarroa Oinez urriaren 21ean egingo dute Bieran. Kilometroak jaietan izena emateko epea urriaren 4an, arratsaldeko 3etan, amaitzen da, eta Nafarroa Oinez ekitaldira joan nahi dutenek urriaren 18ra arte dute izena emateko. Hori udaletxeetan eta Mankomunitatean egin behar da. Partehartzaileek 5€-ko fidantza ordaindu beharko dute, baina 3€ bueltatuko zaizkie.



Euskararen erabilera bultzatzeko kartelak, Txorierriko dendetan




Mankomunitateak kanpaina berri bat jarri du abian, Txorierriko merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko. Horrela, kartel batzuk diseinatu dituzte eta horietan produktuen izenak euskaraz agertzen dira, marrazki eta guzti. Kanpainan hiru komertzio mota hartu dira kontuan: arrandegiak, harategiak eta fruta-dendak; eta bakoitzarentzat kartel pertsonalizatuak atera dituzte. Kartelok Txorierriko janari-denda eta supermerkatu guztietara agindu dituzte. Kanpainak erosleek produktuen izenak euskaraz ikasi eta erabiltzea du helburu. Dendariak pozik hartu dute inizatiba, "egunero gauzak euskaratzea ideia ona da eta euskararen alde egiten den guztia ondo dago beti", esan digu Izaskun Olibares


Zamudioko Itsiza fruta-dendakoak.

Mankomunitateak eta Txorierriko komertzioek hitzarmen bat sinatu zuten duela urte batzuk euskararen alde lan egiteko. Hitzarmenaren barruan 100 komertzio baino gehiago daude gaur egun, eta horiei zein hitzarmenkide ez direnei 'Merkataritza Euskalduntzen' aldizkaria agintzen zaie Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eskaintzen dizkien zerbitzuak ezagut ditzaten. Era berean, asko izan dira Euskara Zerbitzura euskara ikastaroez galdezka hurbildu diren merkatariak. Hori dela-eta, Mankomunitateak gutun eta informazio pertsonalizatu bana bidali die jatetxe, taberna eta denda guztiei, euskara ikastaroak non egin daitezkeen eta abarreko informazioa azalduz.

Trebatzailea, Behargintzan

Euskararen presentzia Mankomunitateko udaletxeetan indartzea eta enpresa mundura hurbiltzea Txorierriko 2007-2010eko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren erronketariko bi dira. Apirilean euskara trebatzaile bat kontratu zen udal langileen euskara maila aztertzeko eta horren erabilera sustatzeko. Hemendik aurrera trebatzailea enpreskin harreman zuzena duten Behargintzako langileekin ere arituko da. Izan ere, Mankomunitatea Behargintzako kanpoko harremanak euskalduntzen ahaleginduko da, hortik abiatuta euskarak bertoko enpresetan gero eta presentzia handiagoa izatea lortzeko.




LIBRERIA SONDIKA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JASOZ MANDUET IZANEN DUTZUN

Liburuak, liburuxketak, plakatliburuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
paperojatuak eta materialak

Máikel Zabalza, 21 48170 Zamudio 499 10337
49100 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORIA

Liz. Fernando Aguirre, e.l.

Nafarroa 500000000 1
Tf: 941 499 99 28 Fax: 941 471 06 18
48900 SONDIKA (Bizkaia)

Goiherri sokatira taldeak bere 30. urteurrena ospatu eban abuztuaren 5ean. Hori dala eta, egitarau oparoa prestau eban. Txalaparta joleek eta aurrekuaren doinuak hasikerea emon eutseen ekitaldian goizean. Ondoren, 600 kg-ko saioa hasi zan, eta finalean Laukizko Gaztedi taldeak eroan eban txapela etxera, finalean Goiherri mendean harturik. Eguerdian, nesken omenaldiaren ordua etorri zan, eta eurek erakustaldi polita eskaini eban.

Jarraian, Suitzatik etorritako Mosnang eta Eberseck taldeek 640kg-ko mailan lortutako garaipena ikusteko erea egon zan. Saioa amaitu bezain laster, Goiherriko oraingo eta lehengo tiratzaileen artean antolatu zan lehia txikia. Azkenik, arrastian 560 kg-ko saioa egin zan, eta horretan bai, Goiherri taldeak txapelduna izatea lortu eban. Ganera, bigarren taldea 4. postuan amaitu zan. Geroztik, sari banaketa eta gauean afaria egin zan.



Testua eta argazkia: Janire Onandi

Antolatzaileek gorriak ikusi zituen egitarua aurrera eroateko, baina pozik agertu ziran. Izan be, giro ederra sortu zan eta txapela eroan eban etxera. Zorionak guztioi!



Erakusketa eta antzerkia, Zamudioko liburutegian

Hergé (George Rémi) orain 100 urte jaio zen eta horregatik hainbat ekitaldi antolatu dira mundu osoan, Tintin pertsonaiaren sortzailearen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko. Zamudion ere izango dira ospakizunak, herriko liburutegiaren eskutik: urriaren 15etik 30era, Tintini buruzko erakusketa didaktikoa egingo dute.

Beste alde batetik, urriaren 27an, eguerdiko 12etan, *Asto bat hipodromoan* umeentzako antzezlan eskainiko du Goringo taldeak. Lan hori Bernardo Atxagak idatzitako ipuinean oinarrituta dago.



ZALDI TXAPELKETA

LEZAMAN.—Aretxalde taldeak zaldi-heziera lehiaketa antolatu zuen irailaren 23an Lezaman. Guztira, hainbat lekutatik etorritako 30 zaldizkok hartu zuten parte: Bediakoak, Trapagaraneakoak, Gasteizekoak, Txorierrikoak... Lehiaketa bost mailatan banatu zen: zaldikumeak, kimuak, haurrak, gazteak eta *young riders* (hau da, zaldizko gazteak). Egiten zuten lehenengo aldia izan bazen ere, antolatzaileak ematzarekin oso pozik gelditu ziren. Beraz, urterik bitan egiteko asmoa dute eta datorren ekainean edo berriro zaldien erakusketa ikusteko aukera izango dugu.



Carmendia ardoak

30000 pl. 749
20190/19
Tel/Fax: 94 492 00 49



GUBAN
SISTEMAS INTEGRADOS, S.L.

LABORANTZAN ERABILTZEKO

20190/19
Tel/Fax: 94 492 00 49

HUITZ KLINIKA



30190/19
Tel/Fax: 94 492 00 49

clanoplan s.a.

global printers

Lizentziatutako Informatikariak 100 z/ft
48101 Zamudio
Telefonoa: 94 491 71 17
Idiagorriaren 100 z/ft

- Inprimatze eta pluma laguntza.
- Kartulak koloretan eta z/ft.
- Digitalizazio eta baltzarizazio, automatizazio eta laguntza.
- Fotokopiatze laguntza eta z/ft.
- Era desberdinetako koadernak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Orain 23 urte, abendua-
ren 31n, eman zuten
lehendabiziko kontzer-
tua. Aurtengo abendua-
ren 31n emango dute
azkena. Behin betiko agu-
rra esateko momentua
gero eta hurbilago dago.
Zamudio, Larrabetzu eta
Lezamako jaietara ere
etorri dira agur esatera.

Testua: Pospolin

Karikatura: Ernesto Murillo 'Simónides'

Potato taldearen agurra, Txorierrin

Ez da berbarik egokiena baina, nola dar-
mazue agonia hori?

Pedro Aianai: Agonia atsegina da, eutana-
sia antzeko zerbait. Uste genuen baino
pozgarriagoa ari da izaten, jendearen eran-
tzunagatik batez ere. Beti tratatu gaituzte
maitasun handiz eta orain, gure azkena
izango dela jakinda, maitasun handiagoz
oraindik. Jarraitzeko eskatzen digute...,
baina erabakia hartuta dago.

Eta *Gracias eta Agur* bira?

Uste dut Potatoren 23 urte eta 9 diskoen
laburpena egiten ari garela, gauza berriren
bat ere sartuz. Hori da, poztasunez eta
ezkerronez egin gura dugu gure azken
bira, hortik dator izena.

**Datorren urteari begira Hegoamerikatik
eta Europatik zerbait egiteko asmoa
duzue...**

Bai, gure aldetik badago interesa, eta bi
edo hiru agentzia dabilta proiektua
zehazten: Argentinara seguruenik; Txile
eta Mexikora, agian; Europan ere ia segu-
ru... Guretat pozgarria litzateke han ere
agur esatea, diskorik argitaratu gabe han
ere ezagunak garelako.

Zergatik agur esatea orain?

Denak du hasiera eta amaiera. Potatok
hasieran jarri zituen helburuak bete dira.
Benoa, ez genuen helbururik markatu, garai
hartan Euskadin egiten zen musika apur
bat aireratzea baino ez genuen gura; musi-
karen irudi ez hain dramatiko eta ez hain
bortitza nahi genuen. Gure asmoa desdra-
matizatzea zen, gaizki pasatu arren, gau-
zak ikuspuntu desberdinetatik uler daitez-
keela erakutsi, eta hori guztia beti mantenu-
du dugun kritika sozialetik eginez. Potato
beti izan da plataforma antzeko bat zerbait
aditzera emateko, musika baldintza kon-
kretu batzuen menpean, musika jamaika-
rren, reggae, ska eta deribatuen bitartez



AIKOR! lagun
Egin zaitez euskararen lagun!

izena/izenburua _____

Helbidea _____

Telefonoa _____

postea _____

Herria/urteko hiria _____

Urru kopurua / 10000 _____

Hodei lagun bat _____

Ordu hiru tartean, astelehenetik ostegoraino:

AIKOR! Auzo Kalea 2, 4 - 48170 Zamudio

edo bidali gure www.aikor.com webgunean

Zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dugu!

hain zuzen ere. Askotan berriztatu da, 50 baino musikari gehiago pasatu dira bantatik, baina gurdiaren aurretik beti egon da norbait: guztiaren gidaria Pako PKO izan da, 23 urtez irau duena eta denak batzen jakin duena. Horrela ba, Pako apur bat nekatuta dagoelako, sartzen zen jende berrien ekarpen eta, ondorioz, disko berrien dinamika apur-tu delako, Juan Barikóren (Jhonny Brusko) heriotzagatik..., "honaino heldu gara" esan genuen. Inoiz ez genuen pentsatu hain urrun helduko ginela. **Nola laburtuko zenuke 23 urte eszenatoki gainean?**

Berba bitan, oso gratifikanteak. Ez dakigu ondo zergatik, baina Potato jende askorengana heldu da, eta hori oso betegarria eta pozgarria da. Ez gara bakarrik heldu Gasteizko gure lagunengana, baita Euskadi osora, Malagara, Extremadurara eta Peruko jendearengana ere... Gainera Potato identifikatzen duen musika egin dugu: ez da reggae, ez da ska; hasieran esaten genuen bezala *punky-reggae party-banda* bat gara.

Eta zein momenturekin geldituko zinatekete?

Oso subjektiboa da hori, bakoitzak bere une berezia izango du, seguru, eta emozioz beteriko momentu asko izan dira... Abuztuaren 4an Gasteizen eman genuen kontzertua azpimarratuko nuke, aurtengo jaien hasierakoa: geure hirian 10.000 lagun batzea Potato bakarrik ikusteko..., ufi! Jende asko hunkitu egin zen eta geu ere bai, zelan ez.

Musika zer bait transmititzeko tresna da. Zer da zuek publikoari transmititu diozuen, eta alderantziz?

Topikoa dirudi baina egia da: publikoak izugarriko energia transmititzen du. Niretzat, behintzat, droga baten antzekoa da, adrenalina igoera itzela... Hasieran taldea egin genuenok ez ginen musikariak; zalapartariak edo komunikatzaileak baino. Pentsatzen genuena transmititu gura genuen. Punkaren abagunea aprobetxatuz, musikarik jakin gabe eszenatokira igo, eta bizi ginen inguruaz pentsatzen genuena esaten hasi ginen, orduko eta gaurko Euskadiren inguruan, euskaldunak garela esateko, eta Euskadi, beste gauza batzuen artean, tropikala eta libertarioa dela esate-



ko (anarkista ez esatearren).

Abuztuaren Gracías eta agur diskoa kalera-tu duzue eta Durangoko Azokarako ere zer bait prestatu duzue...

Mini-CD bat atera dugu hiru abesti berrirekin. 2.000 aleko argitalpen mugatua eta zenbakitua egin dugu, 5 eurotan saltzen dena. Baina doan aterako da, aurrerago Durangoko Azokan argitaratuko dugun DVDa erosiz gero, 5 euroak deskontatu egingo baitira. DVDa disko-liburua izango da, Gasteizko kontzertuko irudiekin, Potatoren historiaren dokumentalarekin, Gasteizko marrazkigileek Potatori buruz uste dutenaz taxututako liburuarekin, abesti ezagun eta berrieekin eta aparteko

gauza askorekin... Hauxe izango da azken legatua, Potatoren testamentua.

2000. urtean ere taldea desagertzeaz izan zen, baina azkenean aurrera jarraitu zenuten. Oraingo honetan, ez dago bueltarik?

Pako PKO: 2000n ez zen desagertzeko planteamendurik izan. Zera gertatu zen, taldeko musikari asko beste talde batzuetara joan ziren, reggae lasaiago bat egitera, hondartzarako musika... Taldea berrantolatua behar izan genuen, tronboi jole eta teklatu jole batekin bakarrik geratu bainintzen. Abaguneko arazoa izan zen, ez desagertzekoa.

Taldea desagerteko erabakia oraingoran hartu dugu lehenengoz. Agurraren bira egiteko proiektua sortu zen, Hegoamerikara joatekoa ere bai, eta ideia ona iruditu zitzaidan. Bestalde, beste gauza batzuk egin nahi ditut. Neuk gura dudanean eta gura dudana lekura joan gura dut eta ez beti nire zortzi lagunekin, hamabost eguneko oporraldirik ez baitut inoiz eduki. Abestiak ez diren beste gauza batzuk idatzi nahi ditut: olerkiak, ipuinak... Dena dela, musikariak gazteak direnez eta beste talde batzuetan ere jotzen dutenez, bira amaituta gero ere, baliteke batzea kontzertu bereziren bat emateko; beharbada egon ez garen leku bereziren baten jotzeko, edo kontzertua emateko arrazoi bereziren bat balego, edo tintontzian geratu den zer bait egitearren.

Argazkia: Pospolin




Unai Markina, begiralea Sondikako udalekuetan

“Umeek kolpeak hartu behar dituzte, zikindu, jolastu...”

Unai Markina sondikarra begirale ibili da herriko udalekuetan. Gazteak 20 urte ditu eta Kirol eta Gorputz-Hezkuntzako Goi Mailako Ziklo bat ikasten dabil. Udalekuetan parte hartu duen lehenengo aldia izan da aurtengoa.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Zerk animatu zaitu begirale ibiltzera?

Gauza asko: herrian bertan lan egingo nuen, nahiko ondo ordainduko zidaten ezagutzen ditudan umeekin lan egiteagatik, eta ezagutu ezean ere, ez nuen arazorik izango, umeekin nahiko ondo moldatzen naizelako. Beste alde batetik, ordutegia ere primeran zegoen, irteera puntual batzuk salbu, goizez lan egin behar baikenuen. Lagun baten bidez izen nuen udalekuen berri. Arduradunarekin harremanetan jarri eta umeekin esperientzia handia dudanez, hartu ninduten. Eskubaloi talde bat entrenatzen dut eta gaztetxoek talde batean ere banago, esate baterako.

Zenbat ume izan duzu zure kargu?

Hamar ume. Euren batez besteko adina 7 urtekoa zen.

Zaila da umeekin lan egitea?

Nola tratatu badakizu, ez. Zazpi urte dituzte, baina ez dira leloak. Gauzak azaldu behar zaizkie, uler dezatela saiatuz.

Udalekuak Kultur Etxean egin dira, zein motatako lana edo ekintzak egin behar izan dituzu?

Oso ume txikiak ziren eta eurei adi egon behar izan naiz, batez ere: ihes egin zezatela saihestu, ondo pasa zezaten ahalegindu... Tailer asko egin ditugu, baina ez zaie gehiegi gustatu eta nahiago izan dute jolastu... Nik nahiago dut umeak jolasten utzi: tailerra gustatzen ez bazaie, hobe da erlazioa daitezela eta primeran pasa dezatela, eta ez pentsatzea hobeto zeudela etxean Play Stationaren aurrean.

Zelan baloratzen duzu esperientzia?

Oso positiboa eta aberasgarria izan da. Pasada itzela! Badaude ume asko beste ume batzuekin egoteko ohiturarik ez dutenak eta nik lagundu diet behar horretan.

Eta zer deritzozu udalekuen antolamenduari?

“Helburua umeek herriko beste ume batzuk ezagutu eta lagunak egin ditzatela da”

duei?

Oso ondo daudela uste dut. Sondikak oso ezberdina den jendeari aukera zabala eskaintzen dio, eta hori herri gutxitan gertatzen da. Udalekuetan 200 bat umeek parte hartu dute eta asko kanpokoak izan dira. Euren herrietan ere udalekuak antolatzen dituzte, ziur asko, baina nahiago izan dute gurera etorri. Lan egiteko prest gaudenak ere asko gara... Nire ustez, gaur egungo gurasoek lar babesten dituzte seme-alabak, etxean telebista ikusten badaude segurua-ego egongo direla uste dute. Baina ez da horrela: umeek kolpeak hartu behar dituzte, zikindu, jolastu, kalera irten... eta ez gelditu etxean.

Kritikarik?

Oso adin ezberdinetako umeak sartu dira talde berean eta hori ez da egokia, haien artean aldea badagoelako. Anai-arrebak ere izan dira talde berean... Dena dela, helburua umeek herriko beste ume batzuk ezagutu eta lagunak egin ditzatela da.

Errepikatuko duzu datorren urtean?

Ahal badut eta lanik ez badut, bai.

MAIORISTAS INFORMÁTICAS
LIMPULSIAKAKU INFORMATIKA
SADON, MANTENIMIENTUA
SEBIRITZU TEKNIKUA

Kada Mena 70 Mena le. 48700. Zamudio
 Tel: 94021144. Milla Etxearekin gerturagarria da, baina

ENTREVISTA - ENTREVISTAS
Ruben

Entrevista con Ruben...
 Zamudio, 2010

On egin

...
 ...
 ...



Erretirentziako

haurtola:

Finantza-txarritan

erretiroaren

guztiekiko eta

galnara...

Bidaia-

asistentziako

doako asagurua

abantailak era

guztietako 2.000

estabimenduetan.

Deskonbust

mundu osoan

izateko gaitza.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbkk.es

orrian

Sortu zure enpresa aukera-berdintasunean

EAEko IV. Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun-planak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun-planak, zeinak Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen babesean baitago (otsailaren 18koa), erakunde publikoek eta horien mendekoak diren entitateek aurrera eramaten dituzten politika eta ekimen guztietan genero-perspektiba sartzearen alde egiten dute euren printzipio orokorren barruan, desberdintasunak desagertzea lortu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko asmoz.

Testuinguru berri eta itxaropentsu horretan, Behargintza Txorierrik 2007-2008 I. Berdintasun-plana jarri du martxan. Bertan aspektu hauek bildu dira: eskaintako zerbitzuak planifikatu, berrikusi eta hobetzea, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatuz, eta laguntza-mekanismoak eta zerbitzuak sortzea, presentzia gutxi duten lanpostuetara sartzeko gai egiten dituzten ekimenetan emakumeen partehartzea sustatzeko. Azken aspektu hau autoenpleguari eta enpresa-sorkuntzari ere badago lotuta.

Proposatutako ekimenen artean, Txorierriko Emakume Ekintzaileen I. Foroa antolatu genuen maiatzaren 23an. Partehartzaileei euren ilusioa eta egindako esfortzua eskertu nahi dizkiegu, izan ere, ezinbesteko laguntza eman ziguten hurrengo arloetan:

–Emakume ekintzaileek proiektuaren garapen-prozesuan zein enpresa martxan jarri eta sendotzeko orduan dituzten beharrian espezifikoak zein bereizgarriak antzematen.

–Euren negozioa duten emakumeek lana eta familia uztartzeko dituzten arazok eta beharrianak aztertzen.

–Txorierriko emakume ekintzaile berrien sarea sortzea baliteke aztertzen.

Foroan oso ideia interesgarriak plante-



atu ziren. Beste batzuen artean, hauek aipa ditzakegu:

–Enpresa mundua ulertzeko eta bertan lekua izateko aholkularitza eta prestakuntzaren beharra. Horiek lagungarriak izan-

go ziren emakumeentzat, euren gaitasunak indartzeko eta euren enpresak sendotzeko.

–Aholkularitza izatearen garrantzia negozioa martxan jarri baino lehen, bitartean eta ondoren.

BEHARGINTZA TXORIERRIKO EMPRENDER



“Emakumea zein gizona izan zure negozioa martxan jarri nahi baduzu, Behargintza Txorierrin zure enpresa aukera-berdintasunean sor dezakezu”

–Udal baliabideak eta enpresen inplikazioa eskasak izatea lan eta familiaren uztartzea bultzatzeko orduan, eta gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna.

–Subentzioak eskatzeko tramiteak burokratikoegiak izatea eta subentzio gutxi egotea.

–Enpresa-foroak edo topaketak bultzatzeko beharra, esperientziak elkartrukatu eta enpresen arteko elkarlana sustatu ahal izateko.

Behargintza Txorierriko Emprender Sailak 'Berdintasunean Sustatzea Txorierrin I. Programa' jarri du abian esperientzia honi esker. Zure enpresaren heltze, sortze eta sendotze-prozesu osoan emango dizugu laguntza, eta, era berean, genero-perspektiba ezartzen ditugun zerbitzu hobetuak eskainiko dizkizugu:

–**Enpresa-informazioa eta diagnostikoa:** Enpresa bat sortzeko eman behar diren pausuak jakinaraziko dizkizugu elkarriketa pertsonal batean, eta negozio-idea aukera-berdintasunean oinarritutako irizpideak kontuan hartuta baloratuko dugu.

–**Enpresa-aholkularitza:** Tutoretza pertsonalizatuak enpresa bideragarria den aztertzeko. Ordu-tegiak eta zerbitzuak ekintzailearen uztartze-beharrizanetara egokituta daude.

–**Enpresa-heziketa:** Enpresa munduaren gaineko ikastaroak zentroan bertan ala on-line, zeinek gizonak eta emakumeak aukera-berdintasunean hezte ahalbidetuko baitute.



–**Enpresa-finkatzea:** Laguntza eta aholkularitza sortutako enpresa sendotu eta hobetzeko, eta laguntza finantziarioa bilatzeko zein lokalak eta subentzioak eskuratzeko.

Eta zerbitzu berriak, gizonak eta emakumeek enpresak aukera-berdintasunean sor ditzatela ahalbidetzeko:

–**Emakumea eta enpresa-gaitasunak:** Tailer horretan emakumeen gaitasun ekintzaileak eta nolakotasun pertsonalak landuko dira, horiek erreminta eraginkorragoak eta plan alternatiboak izan ditzaten enpresaren sortze-prozesuan agertzen diren zailtasunei aurre egiteko.

–**Gaur egungo gaien gaineko enpresa-jardunaldiak:** Horiek enpresaren kudeaketa hobetzeari daude zuzenduta: enpresa ezagutzera eman, enpresa antolatu, banke-txeekin negoziatu...

–**Foruak:** Esperientziak elkartrukatu eta elkarlana bultzatzeko topaketak.



EMPRENDER ZERBITZUA
BEHARGINTZA TXORIERRI
Berreteaga Poligonoa 13 – A
48150 – Sondika (Bizkaia)
Tfnoa.: 94.453.63.70
www.e-txorierrin.com
www.garapen.net

ZERBITZUAREN BIDEZ SORTUTAKO ENPRESAK



Nola ailegatu zinan bikoizketa mundura?

1980/1. urtean Euskal Telebista sortzeko lehenengo urratsak emoten hasi ziran eta aldi berean, bikoizketa-aktoreak trebatzeko eskola bat zabaldu zan Donostian. Eskolak egin eban bigarren deialdira bost lagun bizkaitar aurkeztu ginan, baina Donostiara egunero joan behar eta batzuek itxi genduan. Handik urtebetera beste ikastaro bat egin eben Bilbon eta 20 bat lagunek emon genduan izena. Ikastaroaren ondoren enpresak sortzen hasi ziran eta gu be bikoizketak egiten hasi ginan enpresa horreetan.

Baina zergaitik lanbide hori aukeratu?

Hogei urtegaz edozein gauza barritan sartzer animatuta zagoz. Ni euskararen munduan mugitzen nintzan ordura arte, AEKn izan nintzan materiala prestatzen, ikastaroak emoten... Eta beste esperientzia barri bat zan euskararen inguruan. Kantatzen be ibilia nintzan... Eta, beno, gaztetan halango gauza barri batek erakartzen zaitu.

Mixer enpresan egiten dozu beharra, zein da zure ardura bertan?

Bikoizketak egiten badodaz be, euskarazko testuak zuzentzea dot ardura nagusia gaur egun, eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dot, ganera. Salako zuzenketak be egiten dodaz noizbehinka; hau da, aktoreen beharra-eta ikustatzea. Animazioa, dokumentalak eta publizitatea lantzen doguz filmez ganera, eta irakaskuntzarako audio-materiala be prestatzen dogu.

Era berean, sustapen-bideoak egiten doguz enpresetarako, eta abar.

Zein pertsonaiei jarri deutezu abotsa?

Jesus! Pertsonaiarik ez dot gogoan momen-


Joseba Etxebarria, bikoizketa-aktorea

“Euskarazko bikoizketari adiago izaten gara, beharbada”


Joseba Etxebarriaren abotsa ezaguna da sobera, izan be, hori lan-tresnatzat dau eta hainbat aktoreri eta animazio-pertsonaiari eutsi egin deutse.

Dokumentaletan, spotetan... be larrabetzuarrari entzuteko aukerea izan dogu. Kamara atzean egiten dan beharra da berarena, baina interesgarria eta zoragarria be bai.

“Azken batean gu be aktoreak gara”.



Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Aikor!



35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Enpresa independentea izatea da zure asmoa? Bakoitzak bere asmoak ditu, baina guk guztiak elkarrekin egiten ditugu.

35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

HILORRIAN JORILLARI

ENPRESA


- Enpresa independentea (Enpresa 100%)
- Enpresa independentea (Enpresa 50%)
- Enpresa independentea (Enpresa 25%)
- Enpresa independentea (Enpresa 10%)

ENPRESA

- Enpresa independentea (Enpresa 100%)
- Enpresa independentea (Enpresa 50%)
- Enpresa independentea (Enpresa 25%)
- Enpresa independentea (Enpresa 10%)

ENPRESA

- Enpresa independentea (Enpresa 100%)
- Enpresa independentea (Enpresa 50%)
- Enpresa independentea (Enpresa 25%)
- Enpresa independentea (Enpresa 10%)



DATUEN ERREKORRETA

tu honetan. Eta, egia esan, ez dot pertsonaia nagusi asko egin; normalean bigarren mailako pertsonaiak bikoizten dodaz. Dana dala, gaur egun gehiago nabil publizitatean eta dokumentaletan... Umeak Songokugaz gogoratzen dira bereziki. Urte mordoa izan nintzan horrerri abotsa jartzen.

Eta lehenengoa zein zan gogoratzen dozu?

Bai. ETBk Hallo Spencer marrazki bizidunak emon ebazan hasieran. Horreek Alemaniako marrazki bizidunak ziran, oso politak, bortizkeria bakoak eta oso ondo landuak. Nik Elvisek papera egin neban serie horretan. Elvis mutil kokoloa zan, Spencerren laguntzailea.

Eta bikoizten pertsonaiarik gaxena?

BBCk ekoiztutako telesail batzuk bikoiztu genduzan orain dala urte batzuk. Shakespeareren lanetan oinarritutako saioak ziran eta aktoreek oso dramatizazio ona eben, adierazkortasun handiko aktoreak ziren. Ganera, oso plano laburrak ziran eta ahoak eta keinu guztiak nabarmenki ikusten ziran. Gatxa izan zan bikoizketa horiek egitea, eta aurretik testua euskaraz prestatzea be ez zan lan erreza izan.

Zeintzuk dira eszenarrik zailenak bikoizteko orduan?

Esaldi laburrak diranean. Halako kasuetan askoz zailagoa da aktoreagaz bat egitea.

Kamara aurrean dabilzen aktoreek abotsagaz ez ezik gorputzagaz, eskuekaz... be egiten dabe lan; zuek, barriz, abotsagaz besterik ez. Zaila izan behar dau



Joseba eta Txo, 'Bersoa' etxean

horrek benetan.

Bai, ondo egitea zaila da, baina "onargarria" egitea ez da hain gatxa. Teknika da azken batean, eta teknika gauza mekanikoa da: ekinaren ekinez ikasten da. Ondo egiteko, ostera, aktorearen begietara eta keinuetara egon behar dozu adi, eta, horrela, espresio guztiak transmititzen ahalegindu.

Egindako zein lanagaz zagoz pozago?

Ezin dot esan, ez dot oso txundituta utzi nauen lanik. Gauzak ondo egiten eta besteen lekuan jartzen saiatzen zara beti. Hau da, aktore bat bikoizten badozu, aktore hori zara momentu horretan eta hori izaten

ahalegindu behar dozu, ganera. Dokumental batean, ostera, entzulea edo ikuslea izan behar dozu buruan: gauzak zelan hartuko dituen pentsatu, berbak ondo esan, astiro... Zutaz aparte beste norbait dozu buruan beti eta horren haritik zoaz.

Dokumentalak, publizitatea, filmak... zeinetan zabilz gusturago?

Marrazki bizidunetan, izan be, pertsonaiak exajeratuta, karikaturizatuta dagoz eta zuk be karikatura horretan parte hartzen dozu: pertsonaia leloa bada, lelo-abotsa jarri eta zure ukitua be emoteko aukerea dozu. Baina dramatizazio sakonetan beste kontu bat da, zaila da eta horreetan be gustura egotea gura izango zeunke. Exijentzia maila oso altua da eta ez zara sekula erabat gustura lotzen.

Marrazki bizidunetan abotsagaz jolasteko aukerea dozue, filmetan?

Normalean ez. Testua prestatu eta jatorrizko aktorearen abotsetik hurbilen dagoan bikoizketa-aktorea aukeratzen da, paper

“Marrazki bizidunetan gusturago zabilz, pertsonaien karikaturan parte hartzen dozu-eta. Dramatizazio sakonak zailagoak dira, baina horreetan be gustura egotea gura izango zeunke”

Hästens **Arteaga** kalitxel-denda
 Deriata Setilaria • 94 454 51 47 • BERRIO

hori egiteko. Dana dala, pertsonaiak ñabarduraren bat badau, ñabardura hori emoten da ahal dan neurrian.

Zein ezaugarri bete behar dau bikoizketa aktore batek lana sinesgarria egiteko?

Ez dago ezaugarri berezirik. Norbera oso harkorra izan behar da. Bikoizketa-teknika menperatzeko erraza da, baina aktorearen barruko espresioak-eta bereganatu eta beste transmititzea zaila da. Batzuek lortzen dabe, oso onak diralako, eta abotsa modulatzeko eta abarreko ñabardurak edo espresioak hartzeko gaitasun handia dabelako. Pertsonaiak era ezberdin batean landu behar dira, bakotxa ezberdina dalako. Eta bikoizketa-aktore batek aktorea izan behar dau, azken batean.

Zenbat denbora emoten dozue lan bat bikoizten?

Zortzi orduko lanaldian filma baten ordu erdia egiten da. Filmak 'take'-tan (30 segundoko ataltxotan) zatikatzen dira. 'Take' bakotxean pertsonaia bakarra, bi, hiru, lau... izan daitezke. Bikoizketa-gelan egiten dan lana zera da: 'take' bat hartu eta aktoreek euren pertsonaia aztertzen dabe. Entseguak hiruzpalau aldiz egiten dabez eta horreen ostean, behin betiko bikoizketa grabatzen da. Marrazki-bizidunak badira, 20 minutuko saio pare bat grabatzen dira lanaldi batean.

Kamara aurrean agertzen diran aktoreek etxera daroe beharra, zuek be bai?

“Euskarazko testuak zuzentzea dot ardura nagusia gaur egun, eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dot, ganera”

“Euskal Herrian gitxi bikoizten da; gura geunke baino askoz gitxiago”

Ez. Horreek ezin dabe paperik erabili kamara aurrean; guk, bai.

Inoiz izan zara kamara aurrean? Edo pentsatu dozu?

ETBtik atera naz inoiz, baina ez dot sekula be parte hartu film edo laburmetraia batean. Eta pentsatu be ez dot egin.

Askotan dinogu: “ze ondo egin dau aktore horrek!”. Baina bikoizketa-aktorearen lanak be zer ikusi haundia dau horretan. Zein portzentaje jagokio bakotxari?

Ezin da neurtu. Adibidez, Constantino Romerok Clint Eastwood bikoiztu dau betidanik eta jendeak horreek biak lotzen ditu. Beste batek Eastwoodi abotsa jarriz

gero, ez litxakio jenteari gustatuko, ziur asko. Aktore horreen artean 'feeling'-a sortu da eta oso gatxa da esatea bakotxari zer jagokion.

Halan be, zuen lana ez dagoala behar beste baloratuta dinoe...

Beno, hori bikoizketa asko egiten daben aktoreek esan beharko leukie; bikoizle onek, hain zuzen be. Ez dakit, beste lan batzuek be ez dabe balorazio berezirik izaten... Dana dala, film bat gustatu danean eta aipamen berezirik egin ez danean, hori berez balorazio positiboa da, nire ustez. Izan be, filma bere osotasunean hartu da eta bikoizketak be, noski, zer ikusia izan du emaitza on horretan.

Eta zelan dago zuen mundua?

Euskal Herrian gitxi bikoizten da; gura geunkena baino askoz gitxiago. Katalunian, adibidez, gehiago egiten dabe. Sarritan ikuslegoa be kexatzen da, serie asko errepikatzen diralako... Beno, guk ETB-rako egiten doguz bikoizketak neurri haundi batean, eta telebistak agintzen dauana egiten da. Publizitateari jogokonez, ba, ETB 2rako egiten dana euskaraz bikoizten da ETB 1erako.

Estatuan egiten dan bikoizketa munduko onena dala dinoe...

Izan be, Francoren garaian dana bikoizten zan zentsura dala-eta. Ohitura haundia egon zan bikoizketaren inguruan eta aktoreek urteak eta urteak eman dabez behar horretan. Baina beste herri batzuek -Inglaterra eta Frantzia, kasu-, barriz, ez dabe horren "beharra" izan, eta bikoizketari baino, ekoizteari ekin deusie gehienbat.

Eta Euskal Herrian egiten dana?

Beti abots berberak entzuten dirala dinoe. Eta, egia esan, ez dago lan askorik eta ondorioz, ezin da jente barria sartu. Estatuan be zerbait antzekoa gertatzen da, baina gurea eremu txikiagoa danez nabariagoa da berton. Beste alde batetik, gu hasi ginanean euskara mundutik etorritako lagunak ginan, irakasleak, esatariak... eta gaur egun antzerkigintzatik datozen gazteak pixkanaka-pixkanaka sartzten ari dira mundu honetan, lan puntualen bidez. Positiboa da, gazte horreek ondo prestatuta dagozalako... Eta, argi dot: ahalik eta abots-gama gehien egon, hobeto. Baina ezin da jente gehiago trebatu eta itxaropen faltsurik sortu, gero lanik ez badago.



Josebaren esanetan, bikoizketa-teknika menperatzea erraza bada ere, zaila da aktorearen barruko espresioak-eta transmititzea





CLÍNICA DENTAL

ZAINDUZ

HORTZ KLINIKA

Arria E. Lizarra Huelmo
Leizola 10
48100 DERIO

*2000 años contando
con tu confianza*

*Dozena bat urte zure
konfiantza irabazten.*

- Odontologia orokorra
- I. bakuntza - II. etapa: faktoreetan oinarritua den plasma (PRGF)
- Periodontia
- Hortz jartzea eta beritzea
- Hortz estetika
(zunketa, piercing...)
- Ortodontia
(umek eta helduek)

- Odontologia general
- Cirujia: Plasmotomía orokorra, faktoreetan oinarritua den plasma (PRGF)
- Periodontia
- Implantaketa eta rehabilitazioak dentalak
- Estética dental
(blanqueamiento, piercing...)
- Ortodontia
(niños y adultos)

Golko kalea 2 beheko (anexo E. Lizarra)

48100 DERIO

Teléfono: fax: 94 454 11 01

Móvil: 637 79 54 45

e-mail: info@zainduz.es

www.dentromexico.com/leizola10



ETB2rako egiten diren bikoizketak ETB1erako egiten diranak baino landuagoak dirala irakurri deutsagu bati...

Nik film bat ikusten dodanean bikoizketa-aktorea ikusten dot beti, eta hori gertatzen jat bai gaztelaniazko filmetan, bai euskarazkoetan. Baina hobeak ala txarragoak diran? Ez dot uste alde haundirik dagoanik. Euskaldun gazteek erantzun beharko deutsie horri, beharbada. Izan be, urte gehiago doguzenok zinea gaztelaniaz ikusi dogu beti eta belarria erdarara eginda dogu; hau da, filmak gaztelaniaz entzutea naturalagoztat hartzen dogu. Horren ondorioz, euskaragaz kritikoagoak gara edo adiago gagoz, beharbada. Niri, behintzat, horrela gertatzen jat.

Dana dala, kalitatezko lanak egiten dira Euskal Herrian?

Bai, zalantza barik. Oso lan onak egiten dira.

Abotsa lan-tresnatzat dozu. Galdu dozu inoiz?

Askotan. Afozia asko izaten dodaz, baina erremedioa be topatu dot: limoia eta ezta hartu... Halanda be, ez dot abotsa bereziki zaintzen, eta batzuetan txuflaren bat dozu eta hurrengo egunean nabaritzen da lanean.

Irakaskuntzarako materiala, sustapen-bideoak, spotak... Abots ezaguna da zurea, leku askotara ailegatzen dana.

Behin alaba EGA azterketatik etorri eta: "jo, aita! Zu izan zara grabazioan". Edo lagunak dinotsu: "erakusketa batean egon naiz, euskarazko audiofonia hartu eta zure abotsa entzun dot". Alde horretatik lan atsegina da, izan be, zabala da. Horrezaz ganera, eta euskarazko zuzenketei jagokenez, hainbat itzulpen ezberdin egin behar dira dokumentaletarako edo spotetarako eta nobedadeak dozuz beti esku artean. Polita da alde horretatik be bai.

Hurbiletik



1982an Bilbon ikastaroa egin ondoren, Galdakao Studio enpresan ibili zan bikoizle, bikoizketa zuzendari eta itzul-tzaile-egokitzaile. 1985ean beste lankide batzuekaz batera Edertrack enpresa sortu, eta bertan jardun izan dau orain dala bi urte Donostiako Irusoin enpresaren bikoizketa sailagaz bat egin eta Mixer enpresa sortu eben arte. Edertrackeko lehen urteetan itzul-tzaile-egokitzaile barrientzako ikastaroetan irakaslea izan zan.

• Bikoiztutako pertsonaia edo aktore batzuk:

- Mat Damon: *Finding Forrester*
- Elvis: *Hallo Spencer (Kaixo Spencer)*
- Songoku: *Dragon Ball (Dragoi Bola)*
- Txakurra: *CatDog (Txakur-katu)*
- Stimpy: *Ren & Stimpy (Ren eta Stimpy)*
- Tom: *Tom & Jerry (Tom eta Jerry)*

-Lukas ahatea: Warner etxeko pelikuletan.

• Bikoizketa zuzendari legez egin-dako lan batzuk:

- All the horses are beautiful*
- Gandhi*
- Rabit Prof. - fence*
- Waines world*
- Vertical limit*
- Beyond Rangoon*
- Dr. Jeckyl and Mr. Hyde*
- Dragon Ball*
- Luky Luke*
- Blazing dragons*

Ehundaka kanta, olerki eta antzeko testu itzuli eta egokitu ditu pelikula eta marrazki bizi-dunetarako.

ETBko 'Izar bila' saiorako kanten euskarazko bertsioetako hitzen egilea be izan zan.

SARRIKOLA OGITEGIA

www.sarrikolaogitegia.com

Telefono: 945 454 99 99

KONSTRUKZIOA

www.konstrukzioa.com

Telefono: 945 454 99 99

KONSTRUKZIOA

www.konstrukzioa.com

Telefono: 945 454 99 99

IMPORTAZIOA ETA BILMUNTIA

www.importazioa.com

Telefono: 945 454 99 99

LEJARRERNE JATEETEA

www.lejarrerne.com

Telefono: 945 454 99 99

Ondo pasa eta
sasoï onean egon

25 €-ren
truke hilean



Udako Udaberria
Ezkerretarako parte-hartza
Fitza eta 500000 litro inguruko
Ekoizpena (Ekoizpena) eta
500000 litro inguruko
Ekoizpena (Ekoizpena) eta
500000 litro inguruko

MIDY programa berria: mediku
tekniko eta elkar pertsonalitate horie
(matricula berri 07/10/2014 arte)

Elurri eta bi lagunarekin laster SPA Body
Udako tratamendu erakargarriak eskaintzen
gaituzte berri.

spa **body**

Larrai I. Euzko Auzumna Sardinia de Doko-45180 Doko (Euzko) Tel: 94 454 15 52
www.spabody.com info@spabody.com



“Gero eta lehiakorragoak gara”

Derioko Danerik Paraje! Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalak Merkataritza Astea antolatzen du urrian duela lau urtetik hona. Bertako komertzioak eta zerbitzuak bultzatzea du helburu asteak. Aurten herriko Ostalarien Elkartearekin batu eta Derioko Merkataritza eta Ostalaritza Astea egingo dute lehenengoz.

Zergatik ostalariekin batu?

Elkarrekin batera egitea proposatu genien, ostalaritza eta merkataritza arloak aldi berean promozionatzeaz gain, askoz egite-
rau zabalagoa eskaini ahalko genuen-eta. Horrela, asteak eragin handiagoa izan dezake Derion eta Txorierrin.

Zeintzuk dira Astearen ekitaldirik erakargarrienak?

Ostiraleko berbena eta larunbateko gala baino lehen egingo diren pintxo lehiaketa eta txakolin zein pintxo dastatzea. Azken hori doan izango da. Galak ere jendetza batuko du, ziur asko. Aurten Joseba Solozabalek aurkeztuko du eta ziur nago *glamour* handia emango diona. Gainera, herriko jendeak modeloarena egingo du eta hori oso gustukoa da. Galan 15 komertzio hartuko dute parte, eta ostean koktel bat eskainiko zaie partehartzaileei. Herriko elkarteak eta beste merkatarien elkarte bat ere gonbidatzeko asmoa dugu.


Galak 3. edizioa beteko du aurten. Aurreko edizio biek ikusmin handia sortu zuten...

Bai, lehenengoa Udalak antolatu zuen eta bigarrena, guk. Ibiltoki inguruan *stand*

batzuk jarri genituen eta dena primeran irten bazen ere, oso lan handia egin behar izan genuen. Aurten, berriz, *stand* ez jartzea erabaki dugu. Gala bi urterik behin egiten da eta ez dagoen urtean herrian zerbait faltatzen dela somatzen du jendeak. Beno, horrela adierazi digute guri, behintzat. Beste alde batetik, laguntza handia jasotzen dugu Udaletik eta hori eskertu behar diegu.

Merkataritza Asteak onura ekarriko zizuen lau urte hauetan, ezta?

Asteak, salmentak areagotzea baino, kanpoko jendeak Derion zer dagoen jakitea du helbururik nagusia (izan ere, derioztarrek



“Merkataritza Asteari esker ezagunagoak dira bertoko komertzioak”, dio Mamenek

ondotxo ezagutzen dute). Eta ekimen horri esker, elkarteak zein bertoko merkataritza eta zerbitzuak ezagunagoak dira, gutxienez. Beste alde batetik, Merkataritza Astea herriari begira ere egiten dugu; hau da, gure elkarteak ere bizitza sortzen du Derion.

Sasoian dago Derioko merkataritza?

Borroka handia egin behar da, baina gaurkotzen goaz eta gero eta lehiakorragoak gara.

Komertzio txikiak aurrera egiten badute, bezeroari oso tratu hurbila eskaintzen diotelako da. Derioko merkataritza ez da gauza berria, baina batu eta elkarteak sortu dugunetik hobera goazela uste dut.

Teknologi Parkeko eta poligonoetako langileengana ere heltzea erronkatzat duzue gaur egun...

Bai, denda batzuk ostegunetan eguerdian ere izango dira zabalik Txorierrira lanera etortzen direnei begira. Izan ere, horiek ordu pare bat dute bazkaltzeko eta gurean erosketak egiteko aprobetxatu ahal dutela pentsatzen dugu. Badakigu emaitzak ez direna epe laburrean ikusiko, baina bezero horiek erakartzeko itxaropena dugu.

TXISPAMENDI
BIBINDEIA - ERROTZENA

Compañía S.L. - Leizorikoa (Bilbao) - 94 488 00 37

GOIZOTZ
Janari lezotzuen denda

Txiki-Trade, S.L.
Telefonoa: 94 453 00 00
www.goizotz.com

www.bizkaia.net
#bizkaia

DERIOKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA I. ASTEA

EGITARAUA

* URRIAREN 19AN, BARIKUA

21:00-01:00 Berbons,
ZORGINETALDEAren eskutik

* URRIAREN 20AN, ZAPATUA

19:30-21:00 – Kizilari Iatziaketa
(Beharrezko hiru ekitaldiak eta txapela bana jasoko daite)

Erakutlan eta jantzi desfilaketa bat,
herriko frontoian
(Bari kanaketa Gialan egongo da)

20:00 – III. Gala 2007

Honda eta osagarri desfilak Derioko frontoian,
JOSEBA SOLIDZABALEK aurkeztena

* URRIAREN 21EAN, DOMEKA

11:30-15:30 – Txikiak


12:00 – Zuhaitz Eguna (umeek zuhaitzak landaruko dituzte)




Derioko jantziak
Kizilari Iatziaketa
2007-2008



BASOA
Zuhaitz Eguna



Derioko Urtak



Lanera itzultzeko garaia da iraila. Umeek ez dute lanik egiten, baina eskolara jo behar dute, eta txikienek haurtzaindira, nahi izanez gero. Txorierrin sei haurreskola daude, eta Aikor! aldizkaria horietako bitan egon da: Derioko Eguzkiederren eta Lezamako Katukan.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Goizeko 9:30 dira. Eguzkieder haurtzaindegiko ataritik izugarrizko algara entzuten da. Barruan umeak ohiuka eta negarrez dabilta. “Egokitze garaian gaude oraindik”, dio Estibaliz Ortiz zuzendarietako batek, zarata azaldu nahian. Sondikar horrek duela sei urte haurreskola sortu zuen Yolanda Vázquezekin batera Derioko Aldekone auzoan. Bere ustez, haurtzaindegiak “behar-beharrezkoak” dira gaur egun. “Emakume gehienek kanpoan lan egiten dute eta seme-alabak zaintzeko aitite-amaririk ez badago, nonbaiten utzi behar dira. Eta haurtzaindegiak leku aproposak dira bertan hainbat ume baitaude”.

Irati Jiménez bat dator Estibalizekin. “Gurasoek lan egiten dutenez, ez dakite hurrekin zer egin”, azaldu du. Iratik Katuka haurreskola koordinatzen du Lezaman. Alboan beste hiru lankide ditu

bilbotar honek. Haurtzaindegi hori izan da Txorierrin ireki den azkenengoa, lehenengo udaberrian, alegia. Horregatik agian, 20 ume baino ez daude oraindik. Horiek guztiak bi gelatan banatzen dira, eta logelatik, patiotik, sukaldetik eta erabilera anitzetako gelatik ere ibiltzen dira.

Eguzkieder haurreskola, aldiz, askoz handiagoa da. Bost gelatan banatutako 50

“ Hemen umeak sozializatzen hasten dira: portaerak, harremanak, ohiturak eta hitz egiten errezago ikasten dituzte ”

ume inguru hartzen ditu eta bertan 8 neskak egiten dute lan. Ume txikieneen taldeak murriztagoak dira arreta gehiago behar dute-eta. Eguzkieder txiki gelditu da, eta horregatik egoitza kanpo dauden bi gela gehiago alokatu dituzte.

Sozializatze lehenengo urratsak

Guraso batzuek uste dute, seme-alabak hain txikiak izanda, ez dela komenigarria haurreskolara bidaltzea. Estibaliz eta Irati, ostera, ez daude ados, noski. Euren iritziz, umeak “sozializatzen” hasten dira haurtzaindegian. “Haurtzaindegiak oso erabilgarriak dira, eskolara begira umeak independenteagoak eta prestatuagoak egiten ditu-eta”, argudiatu du Estibalizek. “Lauz-pabost ordu umeen artean egotea oso onuragarria da edozein haurrentzat. Hemen hitz egiten, lagunekin harremanak lantzen, portaerak, ohitura batzuk eta abarreko kontuak errazago ikasten dituzte”, gaineratu du Iratik.

Baina alde txarren bat ere sortzen da oso denbora luzea haurtzaindegian umea egoten bada. Izan ere, ia egun osoan

“ Gaur egungo emakumeak kanpoan lan egiten du eta seme-alabak nonbaiten utzi behar dira ”

lau txakur

daude irekita haurtzaindegia, goizeko 7:30etatik 18:30-19:00ra arte, hain zuzen ere. "Batzuetan beste aukerarik ez dago, baina guraso batzuk aprobetxatzen dira eta zortzi ordu uzten dituzte umeak gurekin eta haurrak gurasoekin egon behar dira, oso txikitxoak direnean, batez ere. Hemen seme-alabak uzten dituztenean, batzuk askatuta sentitzen dira", jakinarazi du Katukako koordinatzaileak.

Halaxe da. "Batzuetan gurasoek ez dute denbora handirik pasatzen euren haurrekin", baieztatu digu Estibalizek. Beste alde batetik, Eguzkiederren zuzendariak haurtzaindegiei leporatzen zaien beste kontu baten inguruan zera esan du: "Haurreskoletan umeek gaixotasunak harrapatzen dituztela esaten da, baina ez da egia; haur batek gaixorik egoteko joera badu, edonon har dezake kaltea".

Horrelakorik gerta ez dadin, azken bolada honetan *webcamak* ezartzea modan jarri da haurreskola batzuetan. Kamara horiek erakusten duena ikusgai dago Interneten bitartez, eta horrela gurasoek une orotan geletan zer gertatzen den ikusteko aukera dute. Txorie-

rriko bi haurtzaindegi horietan ez dute kamararik, baina gure neskek horri buruzko iritzia eman digute. "Gu ez gara planteatu, baina ulergarria da guraso batzuen kezka", dio Estibalizek. Iratik ere zergatik jartzen diren ulertzen du, baina ez dago jartzearen euren alde. "Nik ez daukat kamararik gurasoen bulegoetan ondo lan egiten duten edo ez ikusteko. Badakit gauza bera ez dela, baina eskoletan edo inistitutuetan ere ez dago kamararik, Kamarak direla medio ez-baia jartzen da nire lana. Gurasoek konfidantzarik ez badute, beste norbaitekin utz ditzatela umeak", aldarrikatu du



DEHODO
HERRIKO TABERNA
OSTIRALERO SARTENKO
 39%
 Puntua 10 €
FAMIA FANTASIA
 Lehenengo Charlewick Jantzerak
 41 000 41 85



Leitza
 2014ko azararen 11
 2014ko azararen 11
 2014ko azararen 11

Bocateria
otarteko Pizzeria
 ETORZ ETORZ ZERBITZUA IN TROTSERAKI OROAN
 ZIBURU

BAR RAFI
 HERRIKO TABERNA
 41 000 41 85

BASTXIKI
 HERRIKO TABERNA
 TORTILAK
 41 000 41 85

Iratik.

Hautzaindegi euskaldunak

Ume eta gelen artean ezberdintasunak daude hautzaindegietan, "haur guztiak berdinak ez direlako". Hizkuntzari dagokionez, adibidez, haurreskola pare horretan euskaraz baino ez da egiten, nahiz eta ikasle txikientzat beti erraza ez izan. "Hasieran batzuek ez dakite euskaraz egiten, gurasoak euskaldunak ez direnez, etxean ez dute entzuten. Hala ere, hilabete batean egokitzen dira eta beste kideen mailean jartzen dira", dio Estibalizek.

Hizkuntzarena ez ezik, adinaren aldea ere badago haurren artean, noski. Baina hori ondo datorkie, Iratiren ustez. "Batzuk beste batzuk baino hobeto ibiltzen dira eta horrek motibazio gehiago ematen die oraindik ondo egiten ez dutenei". Umeen arteko alde horien arabera egiten diren ariketak ere ezberdinak dira, nola ez. "Txikienekin estimulazio-ariketak egiten ditugu: gauza handiak dituzte esku artean, lau hankatan ibiltzen hasten dira, ipuinak edo kantak botatzen dizkiegu... Handiagoak direnean, ostera, egiturak sartzen hasten gara, hau da, ordutegiak daude, rutinak eta ohiturak hartu behar dituzte -borobilean eseri, esaterako-. Gainera, psikomotrizitatea lantzen dute...", azaldu du Estibalizek.



Txorierriko haurreskolak

● Zamudioko haurreskola

Enara kalea, 2
Telefonoa: 94 608 63 89

● Amor Misericordioso (Loiu)

Larrondo, 4
Telefonoa: 94 453 01 14

● Larrabetzuko Udal Hautzaindegia

Andra Mari, 35
Telefonoa: 94 455 71 73

● Eguzkieder (Derio)

Besaide Plaza, 1
Telefonoa: 94 454 16 37

● Katuka haurreskola (Lezama)

Garaioltza auzoa, 86 D - Behea
Telefonoa: 94 455 43 35

● Zuhazti haurreskola (Zamudio)

Teknologia Parkea, 107 C Eraikina
Telefonoa: 94 466 26 00

KULTUR ETXEA
Euzko Lehen Unibertsitatea
Tel: 94 494 11 11

ANIZLERKIA
Lurralde baserri, bertakoa,
94 494 11 11

BBK
Baserri Baserriak
www.bbkk.euzko.es

2012

Zanuzioho Kamara Koralaran

XX. urteurrenean

Eskara Zantabur!!!






Koralaran,
Koralaran
Koralaran!!!

Zanuzio
2012. urtean
94 454 3967



euskara

zure gaitasuna

www.aek.org



EUSKARAZ HITZ EGIN
MARIA ITIBERRI
ANTONIN IAK IZBILIAIN
EGA, HIZKUNTZ ESKAKIZIEMAK 1 ETAN

944 543 967

IXEPEIXA EUSKALIEGIA
GORDA KALEA 5 BEHEA
IxepiEgia@eak.org

Euzko Leizorak Euzko Leizorak Euzko Leizorak
 Euzko Leizorak Euzko Leizorak Euzko Leizorak

Udal euskaltegiak, on egin !!!

ITIBERRI

TEKNOLOGIA BERRIAK

HARRERAK

ERRITMOAK

Itiberrak (2012. urtean) - Maria Itiberrak, Antonin Iak Izbilian, Ega, Hizkuntz Eskakizienak 1 Etan

Teknologiarik Berrak (2012. urtean) - Euzko Leizorak Euzko Leizorak Euzko Leizorak

Harrerak (2012. urtean) - Euzko Leizorak Euzko Leizorak Euzko Leizorak

Erritmoak (2012. urtean) - Euzko Leizorak Euzko Leizorak Euzko Leizorak



Euzko Leizorak Euzko Leizorak Euzko Leizorak
Beheko Plaza, 5 - 48100 DEUSTO
Tf. 94 454 3967 Fax. 94 454 3738
www.euzko-leizorak.org

Iratxe Gezuraga, Zamudioko Kamara Koralarren zuzendaria

“Abesbatzaren gabezia? Oraindik apuntatu ez diran abotsak”

1986ko Gabonak ziran eta urteak be baziran Olentzero ez zala abesten Zamudion. Iratxe Gezuraga musika irakasleak ikasle eta herritarrez osatutako taldea bildu, eta baserririk baserri ibili ziran ikazkinari abesteko tradizioa berreskuratzen. Hurrengo urtean Zamudioko Kamara Korala sortzera animatu zan, ikasleek halan eskatuta. Orduetik hona 20 urte pasatu dira eta abesbatzaren abeslariak pozik dabilz urteurrenaren ospakizunak antolatzen.

Testua: Itxaso Marina

Zure proiektuak harrera ezin hobeia izan dau, beraz.

Bai, ni oso gustura nabil. Eta koralaria zamudioztarrak ez eze Txorierriko beste herrietako jendea be badator: Deriotik, Lezamatik... Emakumeak baino ez zagoze abesbatzan... Momentu honetan, bai. Korala 11 neska osatzen dogu eta batzuk hasiera-hasieratik jarraitzen dabe, ganera. Taldetik lagun asko pasatu dira eta orain dala urte batzuk arte mutilak be izan dira.

Diziplina handia izan behar da koral baten

partaidea izateko?


Musikak diziplina handia eskatzen dau berez, eta nik, konprometidu ezker, entseguetara etortzeko eskatzen dot. Izan be, urtean zehar hainbat kontzertu emoten dogu, eta entseguetan sei lagun baino ez bagagoz, ezin da aurrera eroan. Dana dala, gure arteko giroa aitaturko neuke nik. Konfiantzazkoa da, urteetan lortutakoa, eta gustura gagoz. Hori oso inportantea da.

Zein da zuen talde-filosofia?

Musikaren bitartez gozatzea. Abesteak ekarpen handia egiten deutse etortzen diranei, izan be, abesteaz ganera, teknika bokala be lantzen dogu eta erlaxatzen ikasten dogu, besteak beste. Eboluzino itzela izan da 20 urte honeetan, baina jenteak jarraitzen dau oso motibatuta etortzen; osterantzean, talde kultural batek ez luke hainbeste denbora iraungo.

Zein izan da koralarren ibilbidea?

Olentzerogaz hasi ginan eta gaur egun Olentzero abesten jarraitzen dogu baserririk baserri. Beste alde batetik, batzuetan Gabonetako ospakizunetan abesten genduan, eta Bizkaiko Abesbatzen Elkartearen (BAE) gagoz hasiera-hasieratik. Pueri Cantores al-



Hotel Tryp Sondika



Espaniako
SERVIZIO GUTUEN ERKIDIA
BERBIZIENA GUREKIN

Tryp

TRYP

Hotel Tryp Sondika, s.a. - Avda. de Europa, 10 - 48940 Sondika (Bizkaia)
Tel: +34 94 470 00 00 - Fax: +34 94 470 00 01
E-mail: reservas@tryp.com

kartean be izan gara abeslariak gaztetxoak izan diran bitartean. BAEk antolatzen dituan Udaberriko Kontzertuetan parte hartzen dogu, Derioko abesbatzak antolatzen dituan Gabon Kontzertuetan, Begoñako Aste Koralean... eta kanpotik deitzen badeusku, edozein tokitara joaten gara. Pueri Cantores alkartegaz, adibidez, bidaia asko egin doguz: Koloniara, Salzburgora, Lyonera, Bartzelonara...

Ez dakigu zer dan koral bat?

Ez, batzuk ea opera kantaten dogun galdetu deuste; beste batzuk ea mezan kantaten dogun... Informazio eza dago, nire ustez.

Eta zer da?

Jendea gustura sentitzen dan gunea, zeinetara gustura joaten baita alkarregaz egotera eta alkarregaz abestuz ondo pasatzera.

Koruen mailak hobetzen doaz denboraren poderioz eta gaur egungoek ez dabe zer ikusirik atxinakoakaz. Koruko zuzendariak be musika ikasketak baditu, emaitzetan nabaritzen da.

Eleizan jotzeak be ez dau laguntzen abesbatzen ganean dagoan irudia aldatzeko...

Bai, baina ez dogu antzokirik! Eleizak erai-kin handiak dira eta horregaitik egiten dira bertan kontzertuak. Beste lekuetan ez genuke lekurik izango hainbeste jente batzeko. Egokiena antzokiren bat izango litzateke... Bai, nik auditorioa eskatzen dot!

Zuen kontzertu batera joan behar, benetan zer dan jakiteko.

Kontzertuetan errepertorio zabala eskaintzen dogu: bertoko folklorea, Hegoamerikakoa, jazz, swing, gaur egungo musikariak,

“ Askok ez dakie zer dan koral bat ”

soinu-bandak, alemaneraz abesten dogu, ingelesez... Koreografia eta guzti prestatzen dogu eta horrek izugarri erakartzen dau jentea, pilo bat gustatzen jako. Etorri eta ikusi. Hasieran euskal errepertorioa lantzen genduan eta beranduago sasoi guztietako musika landu izan dogu.

Zelango esperientziak izan dira kanpoan izandakoak?

Oso aberasgarriak, izan be mundu mailan umek eta gaztek osatutako hainbat abesbatzegaz alkartu izan gara: txinatarrakaz, Polinesiakoakaz, ameriketaoakaz... eta koruko neskek lagunak egin dabez. Beste alde batetik, Bizkaiko ia herri guztietatik pasatu gara eta Estatuko hainbat lekutan izan gara beste koro batzuek gonbidatuta: Leonen, Terrassan... Bertan kantua ez dago beste diziiplina batzuen maila berean, eta kanpora ateratzen zarenean konturatzen zara zenbat talde dagoan, zenbat jente inplikatur... eta dinozu: 'Jo, zeozer bagara!'. Bertoko kontzertuetara jente asko etortzen bada be, egundoko harrera izan ohi dogu kanpoan: jendetza handia izaten da eta oso arrakastuak izaten dira kontzertu horreek.

Zein da koralaren alderik indartsuena?

Gaztetasuna, ezaugarri horregaz asko lortzen baita: memoria fresko dabe, arintasuna gauzak ikasteko... Diziiplina be bai.

Eta gabezia?

Oraindik taldean apuntatu ez diran abotsak.

Zer egin behar dabe horreek zuenean izena emoteko?

Zamudioko eskolako pisuetan egiten doguz entseguak. Edozein astearteetan bertara joan daitekez, edo gure telefonora deitu: 695 75 92 11.

20 urtez musika zabaltzen

Zamudioko Kamara Koralak Madrilen ekin eutseen 20. urteurrena ospatzeko antolatu dabezen ekitaldiei ekainean. San Ignazio de Loiola eleizan kontzertua eskaini eben eta bertan jendetza handia batu zan. Madrilen bizi diran euskaldun asko be publikoan izan ziran. Kontzertua zati bitan banandu eben: lehenengo zatian euskal folkloreaken piezak interpretatu eben baserritar jantzia eta guzti, eta bigarreanean nazioarteko musika abestu eben. Entseguak dirala-ta, egun gogorra izan zan neskeentzat, baina, zuzendariaren esanetan, merezi izan eban. "Bertako publikoa primeran portatu zan gugaz eta asko gugar hurbildu zan eskerrak eta zorionak emotera. Malkoren bat be ikusi genduan... Oso gustura gagoz koralean eta hori transmititu egiten da".

Abesbatzaren neskak topera dabilz urteurrena prestatzen; beraz, datozen

hilabetetan zer kantatu eta zegaz gozatu ez da faltatuko Zamudion.

Urriaren 27an: Sabadellgo taldegaz alkartuko dira.

Urriaren 28an: Pueri Cantores alkar-tearen taldekide ohiek mezea abestuko dabe. Partehartzaileak: Basauriko Soinu Bidea, Mañariko "Kirikiño", Zornotzako "Abes Kimu", Sabadellgo "Sant Esteve" eta Zamudioko Kamara Korala.

Azaroaren 3an: Singapurreko SYC Ensemble Singers abesbatzaren kontzertua, 20:30ean, San Martin eleizan.

Azaroaren 10ean: Vocalia taldeko kontzertua, 20:30ean, San Martin eleizan.

Azaroaren 17an: Txorierriko abesbatzen emonaldia, 20:30ean, San Martin eleizan.

Azaroaren 19tik abenduaren 2ra: Erakusketa Zamudiotarren: argazkiak, oroigarriak, jantziak...

Azaroaren 24an: Bazkaria.



Landa-turismoaren gaineko ikastaroa *on-line*

Landa-turismoa gorantz doan jarduera da eta sektoreak, etorkizunari begira, erronka handiak izango ditu kudeaketa eta garapen-arloetan. Asmoz Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Finantza Ekonomia Sailak Turnet ikastaroa martxan jarri dute beharizan horiek asetzeko asmoz.

Inork ezin du ukatu landa-turismoa oso jarduera erakargarria izateaz gainera, aukera asko ematen dituela. Txorierrin ere horren adibide batzuk ditugu: Iabiti Aurrekoa, Zamudion; Arriortua, Derion; Matsa, Lezaman eta Miamendi, Larrabetsun. Turnet ikastaroa landa-turismoarekin zer ikusia duten enpresa eta negozioen kudeaketan dago espezializatuta eta *on-line* ematen da. Ikastaroak partehartzaileei hainbat teknika eta ezagupen

jakinaraztea du helburu, horiek euren negozioak modu lehiakorrean aurrera eramanez izateko. Horrela, enpresa-kudeaketak hartzen dituen esparru guztiak lantzen dira kurtsoan eta arlo komertziala eta ekonomiko-finantzieroa azpimarratzen dira bereziki. Era berean, landa-turismoaren proiektuei lotuta dauden aspektuak aztertzen dira eta jarduera horretako alde guztiak arteko oreka bilatzen da: ingurune, eskaintzaile eta eskatzaileen arteko oreka, hain zuzen ere.

Ikastaroa lagun hauei dago zuzenduta:

–Kudeaketa, marketin eta finantza-arloetan euren ezagupenak handitu nahi dituzten eta landa-turismoan aritzen diren enpresariak.

–Euren jarduera landa-eremura zabaldu nahi duten

sektore turistikoko profesionalak.

–Landa-turismoko proiektuak garatu nahi dituzten pertsonak.


–Turismo edo enpresen kudeaketarekin zer ikusia duten ikasketak egiten dabiltzan eta arlo horretan espezializatu nahi duten ikasleak.

–Landa-turismoko proiektuak kudeatzen dituzten elkarteak eta erakundeak (publikoak zein pribatuak).

–Landa-turismoko ekimenak bultzatzen dituzten administrazio publikoak.

Ikastaroa malgua eta interaktiboa da eta praktikotasunean oinarritutako metodologiari jarraitzen dio. Partehartzaileei klabe bana emango zaie eta horren bidez kurtsoaren orri interaktibora sartzeko aukera izango du. Bertan gai hauek kontsultatu ahal izango ditu: material gehigarria, tutoretzak, eztabaida-guneak, testak eta praktikak, besteak beste. Ikastaroak 1.000 euro balio du eta 2007ko azaroaren 1etik 2008ko martxoaren 31ra bitartean izango da. Izena emateko epea zabalik dago.

Informazio gehiago:
www.turnet.asmoz.org
turnet@asmoz.org





Txorierri zerutik

Heldu zan eguna, nahiko garbi eta sargori. Agertu ginen hiru lagunok Sondikako terminal zaharrean, ordu erdiko protokoloaren ostean -nortasun agiria erakutsi, txaleko fosforitoak jarri, azalpenak entzun, ibilbidea hautatu...- eta hasierako bildurrak edo barruko kili-kiliak lurtean itxita, hor goaz zerura bidean!

Itsasorantz urten eta Bilboko itsasadarrek marrazten dauan lerrotik "abioiatuta" hiriburua ikusi genduan lehenengo; gero, kostaldeko lerroari jarraituz, Sopela, Gorliz, Armintza, Bakio, Bermeo... Itsasoaren handitasunaz jabetu ondoren, Urdaibairen edertasunean murgildu ginen... Apur bat eskumarantz eginez eta ia-ia konturatu barik urdinetik orlegira pasatu ginen, Mungialdeko ibar luze-ederreko landak, basoak eta baserriak bistaratu...

Eta Loiuko kontrol-dorretik baimena lortu ondoren, Goitioltza gain-gainetik egin genduan hegaz emozino berezia senti-

Goitioltzako komisinoak, auzoko jaietarako diru apur bat atarateko asmoagaz, hegazkin baten hiru lagunek ordu beteko osteratxua egiteko saria zozketatu eban. Eta, zer da kontua, ezelango tranpa barik, komisinoari berari tokau barik beste norbaiti tokau egin jakola eta, hau da inportanteena, saria benetakoa izan zala, gozagarria, zoragarria...

Testua eta argazkiak: Basabiltza

duz... Txorierri alborik albora zeharkatuten itxi euskuen Lezama gainetik pasatuz: eskerretara Larrabetzuko solo, baso eta landak; azpian Lezamako zabaltasuna, bere futbol-zelai eta guzti. Aurrerago, Zamudioko eliza, dorretxea, parkea... Derioko seminarioa, hilerria. Ezin da berbatan ipini goitik ikusi genduzan edertasun guztiak... Eta, denbora agortuaren penaz, Txorierriko albo bat luzetara hartuz, Sondikan lurreratu zan aparatua oso osorik.

Txorierri zerutik ikusteak beste dimentsio bat emoten deustso ibarrari eta inguruei. Goitik beste modu batera ikusten da mundua; beste ikuspuntu guztiz desberdin horretatik, aireak emoten dauan mantsotasunetik lurrak eta jendeak ederrago eta txikiago ikusten dira, eta, ondorioz, norbera bihurtzen da txikiago. Esperientzia gozagarria eta aberasgarria, benetan!

Eskerrik asko Goitioltza, erosiko doguz txartelak datorren urten be!

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasaje-ko koltxonetak.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
20 ekoizle
Irabazlea:
Mitzel Etxebarria



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museoa, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:




Nork berritu du Goikolexeako karreja?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ


Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Guretzarekin, gure pertsonen inplikazioarekin eta fidagarritasunarekin jarraituz, hiru urteko 2014-2016 inplazamenduari buruzko proiektuak finantzatu. Fikazitatearekin erregulatu giteko.



GRUPO
Industria de Turbo Propulsión S.A.





Ahaztuko ez dituzun sentrazioak



Azumendi Konplexua
Jatetxea - Bodega - Ezkontzak - Enpresan ospakizunak
Legina aurza - Lanabetzu
Telefonoa: 944 55 88 66
www.azumendi.biz



A Z U
M E
N D I